

# Hernanik kronika

TOKIKOM 2013ko abenduaren 31a, asteartea ::: 4.600 zk. ::: www.kronika.net



## ❖ BERTSOLATA Urtea kantuan bukatzeko, erronda

Hernaniko Bertso Eskolako kideak urteroko ohiturari heldu eta errondan aterako dira gaur, 17:15etan egin dute zita, Udaleko arku-petan. Zaharren Egoitzara joango dira lehendabizi; eta gero, Kaxkoan barrena ibiliko dira. ||

## ◆ ERREMONTA Binakako txapelaren bila gaur, Galarretan

Binakako Txapelketa Nagusiko txapela janzteko azken pausua dute aurretik Urriza eta Endikak, eta Uterga eta lonek. Final handia jokatu dute gaur Galarretan, 17:00etatik aurrera. ||

## ❖ LIBRE DINAMIKA Bost ekintza, gaur

*Garin libre!* lemapean, bost ekintza antolatu dituzte gaur, urteari agur esateko: 11:30etan umeen txokoa Plaza Berrin; 16:00etan, mus txapelketa Garinen; 19:00 triki poteoa Garinetik abiatuta; 20:00 denok Garinen aurrean laranjaz; eta 20:30etan, saski eder baten zozketa. ||

## ❖ TRAFIKO ALDAKETA Aldaketak Martindegi eta Akarregi artean

Udalak jakinarazi duenez, urtarrilaren 2tik aurrera aldatu izango dira Akarregi eta Martindegi lotzen dituen bidean. Martindegitik Akarregira dihoan bidea matendu egingo da; ez ordea Akarregitik Martindegira dihoana. Garraio publikoak arazoak ditu bertatik pasatzeko eta norabide bakarrek bidea izatera pasako da. Akarregitik Martindegira joateko A-15 autobia erabilteko aukera dago. ||

## Latsunbeberriko Aizpuru farmaziak egingo ditu gaueko guardiak 2014an

Urte osoan, egunero kubrituko ditu gaueko orduak Aizpuru farmaziak, 22:00etatik 09:00etara. Eguneko guardiak aldiz, Hernani, Urnieta eta Astigarragako farmaziek egingo dituzte, txandatu.

AIZPURU Farmaziak egingo ditu gaueko larrialdi guardiak urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra. Latsunbeberri auzoko 11garren zenbakian dago farmazia, eta kontakturako telefonoa 943 33 60 77 da. Gaueko 22:00etan hasten da guardia farmaziaren turno eta goizeko 09:00ak bitarteko zerbitzua ematen du.

Hamar urte dira Hernaniko farmaziak errotatu egiten direla, urte osoko gaueko guardiak kubritzeko. Turno horietan lanean aritzen direnak ordea, berdinak dira beti. Hiru kidek osatzen dute gaueko guardietako taldea eta bi hernaniarrak dira: Mar Santamaria, Marian Arbaizu eta Yolanda Caro.

### Eguneko turno, txandan

Eguneko guardiak ordea, txandaka egiten dituzte Hernaniko, Urnietako eta Astigarragako farmaziek. 13:30-16:00 eta 19:30-22:00 bitarteko orduak kubritzen ditu eguneko guardiak.



Karmele Aizpurua eta Idoia Fernandez.

### Larrialdi gutxi

Karmele Aizpuru, Idoia Fernandez eta Itziar Mitxelenak daramate Aizpuru farmazia-

ko martxa. Guardiaren inguruan galdetuta, Hernanin ez dela larrialdi askorik izaten dio Karmele Aizpuruk: «me-

dikutik ateratakoan, lanetik etxera bidean... badira momentu horretan erosi behar dutenak, eta horretarako daude gehienbat guardiak farmaziak. Jendeak bietan bat aukeratuz gero, eguneko guardietara jotzen du. Gauean ez da mugimendu askorik izaten, behar behar beharrezkoa besterik ez.»

### Bi momentu, aipatzekoak

Hamasei urte pasa dira Aizpuru farmazia zabaldu zutela, eta eboluzio honetan, bi momentu aipatzen ditu Karmele Aizpuruk: «lehendabizikoa, guardiekin zuzen zuzenean erlacionatuta. Guretzat, pausu handia izan zen gaueko guardiak zentralizatzea; hau da, urte osoa farmazia batek egitea eta horretarako talde bat egotea. Eta bestea, berri berria baina oso ondo funtzionatzen ari dena: errezeta elektronikoa. Guztiontzat da erosoagoa eta eraginkorragoa.» ||

## ATLETISMOA

## San Silvestre lasterketa gaur, Wukroren alde

Lau kilometroko lasterketa izango da nagusia, Plazatik 18:15etan abiatuta. Txikientzat bi lasterketa ere izango dira. Izena emateko aukera izango da gaur, bertan.

KIROLAK eta elkartasunak bat egingo dute gaur, urteari bukaera emateko. San Silvestre lasterketa antolatu dute CD Hernanik, Hernani Wukroekin GKEk, Etiopia-Utopia fundazioak eta Euskaltrailek. Lasterketa nagusia, 14 urtetik gorakoena, erraza

jarri dute, edonork egiteko modukoa. 18:15etan aterako dira Plazatik, 4 kilometroko ibilbidea izango dute, herrian barrena. Bi maila izango dira: emakumezkoena eta gizonezkoena. Saria aurreneko hiruentzat izango da.

Beste bi lasterketa ere egin-

go dira aurretik: txikiena, 0-8 urte bitartekoa izango da eta gaztetxoena, 9-13 bitartekoa.

Azken orduan animatu eta parte hartu nahi dutentzat izena emateko aukera izango da irteeran bertan. Nagusien lasterketan parte hartzen dutenek 10 euro

ordaindu behar dituzte.

### Kirol oinetakoak jasotzen

Zapatila Solidarioa ekintza ere izango da gaur. Kirol oinetakoak jasoko dituzte Plazan, Wukrora bidaltzeko, 17:00etatik aurrera. Ondo dauden oinetako guztiek balio dute. ||

**RIOJA TABERNA**  
APARTEKO GIROA  
2013. urtea ere pasa zaigu!  
Urte Berri on guztioi!

Kale Nagusia, 6

**MASUSTA EKODENDA**  
Elikagai Biologikoak  
(barazki eta frutak barne)  
Senda Belarrak  
Kosmetika Ekologikoa  
Liburuak...

-MEDIKU NATURISTAREN KONTSULTA  
-TNDR MASAJEA  
-KIROMASAJEA, KIROL-MASAJEA, DIGITOPUNTURA  
-YOGA KLASEAK  
-ZEN MEDITAZIOA  
-TERAPIETARAKO ESPAZIOA ALOKAGAI

KARDABERAZ, 43 - HERNANI  
Tel.: 943 55 57 10

**DORRONSORO**  
Ogi egin berria  
beti zure eskura

OKINDEGIA

Orain bi tokitan aurkituko gaituzu:  
⇒ **Lizeaga 4an.**  
Ogia eta bolleria aukeran.  
Orduetgia 07:15-14:00/17:00-21:00

⇒ **Akarregi poligonoan,** obradore nagusia, denda eta kafetegia.  
Orduetgia: 05:30-13:30/16:00-19:30



**TELEFONOAK**

● **Taxiak:** 943 550093 ● **Udaltzaingoa:** 943 333288 ● **DYA:** 943 464622 ● **Autobusak:** Herri barrukoa: 943 550548 – 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037  
 ● **Anbulatorioa:** 943 006666 ● **Jokalari anonimoak:** 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak:** 943 331103  
 + **FARMAZIAK** ● **GAUR:** Eguez: **Etxebeste** Elkano 2 - 943 552087 ● **Gauz:** **Aldabe** Perkaiztegi 8 (Antziola) - 943 336022  
 + **FARMAZIAK** ● **BIHAR:** Eguez: **Castilla** Urbieta 7 - 943 552941 ● **Gauz:** **Aldabe** Perkaiztegi 8 (Antziola) - 943 336022

**EGURALDIA**

**GAUR** Lainoak eta ostarreak tartekatuko dira. Iluntzean hodeiak uguritu eta tantaren bat bota dezake. Temperatura, gora: Min.7° / Max.15°

**BIHAR** Hegoaldeko haizea nagusituko da. Zeruian erdi mailako lainoak izango dira; arratsaldean euritara egin dezake. Temperatura, gora: Min.8° / Max.17°

(euskalet)

**TAMAINA HAUNDIKO HONDAKINAK**

## Urtarriletik aurrera, bi astetik behin jasoko dira hondakin haundiak

Hondakin horiek atera ahal izateko, aurretik Atez Ateko bulegora deitu behar da. Tokatzen den asteko asteazken gauean atera beharko dira. Beste bi aukera ere badaude: Garbigunera eraman edo Berrerabilpen Zentrora. Hiru zerbitzuak dohainik dira.

MAHAIK, sofak, armairuak, garbigailuak... hau da, tamaina handiko hondakinak astero jaso izan ditu orain arte Udalak. Urtarriletik aurrera, ordea, aldatu egingo da. Bi astetik behin egingo da bilketa. Ostegunetan bilduko dituzte hondakinak, baina etxetik asteazken gauean atera beharko dira. Eta ostegun honetan bertan hasiko dira bilketarekin. Beraz, urtarrilaren 2, 16 eta 30eko bezperako gauean atera ahal izango dira tamaina handiko hondakinak, datorren hilabete honetan.

**Deitu gabe,**
**300 euroko isuna**

Hondakin horiek Udal langileek bildu ditzaten, behar beharrezkoa da aurretik Atez Ateko bulegora deitzea. Eta beraiek esandako lekuan utzi behar dira hondakinak. Atez Ateko bulegora deitu gabe hondakinak utziz gero, isuna jarriko du Udalak eta

Bilketa ostegunetan egingo dute eta asteazken gauean atera behar dira hondakinak, aurrez deituta.

300 eurora iritsi liteke. Honako telefonora deitu behar da: 900 840 090.

Bestalde, Udalak jakinarazi du, ez dituztela etxeko obretako hondakinak bilduko. Horiek Garbigunera eraman behar dira.

**Garbigunera eramateko aukera, goiz eta arratsalde**

Beste aukera bat ere bada hondakin haundiak etxetik ateratzeko. Norberak Garbigunera eraman ditzake asteko edozein egunetan eta goiz edo arratsaldean. Hernaniko Garbigunea Ibarluze poligonoan dago, arraun elkartea-

ren ondoan. Honakoa da Garbigunearen ordutegia: astelehene ostiralera, 10:00-14:00 eta 16:00-19:00; larunbatetan, 10:00-15:00; igande eta jai egunetan, berriz, itxita.

**Berrerabilpen zentroa, beste aukera bat**

Hirugarren aukera bat ere bada tamaina handiko hondakinak botatzeko. Hernaniko Berrerabilpen Zentrora eraman daitezke. Zentro hau, Nafar kalean dago, 19garren zenbakian. Tamaina dela eta, norberak ezin badu bertaraino eraman, beraiek pasatzen dira etxetik jasotzera, aurrez dendarra deituz gero. Telefonoa, honakoa: 943 50 63 41. Berrerabilpen Zentroak ondoko ordutegia dauka: astelehene ostiralera, 09:30-13:30 eta 17:00-20:00; eta larunbatetan, 10:00-14:00.

Aipatutako hiru zerbitzuak dohainik dira. ||



Mahaiak, sofak, garbigailuak... dira hondakin haundiak.

**IRAGARKI MERKEAK**

**Etxea salgai,** 63 m<sup>2</sup>, 2 logela, komona, sukaldea, egongela, kalefakzioa, trasteleku eta igogailua. Eguzkitsua, Antzolan. 180.000 €. Deitu: 665 713 525

**Lokal komertziala alokagai,** Florida auzoan. 250 m<sup>2</sup>, entreplanta, komona eta ofizinarekin. 1.300 €/hileko. Deitu: 665 717 821

**ETXEKO KONPONKETAK** egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

**Inigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebra, reflexologia, aurikuloterapia...: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

### Zer dira TAMAINA HANDIKO HONDAKINAK?

Etxean ditugun eta jada baliagarriak ez zaizkigun tamaina handiko materialak.

Esaterako: mahai bat, sofa bat, koltxoi edo gergoi bat, garbigailua edo hozgailuak moduko elektrogailuak.....


**Nola kudeatu behar ditut?**
**3 aukera ditut:**
**1 GARBIGUNERA eramatea**

**Non dago** Ibarluze Poligonoan

**Zein ordutegi du** Astelehene ostiralera 10:00 – 14:00 / 16:00 – 19:00  
 Larunbatetan 10:00 – 15:00  
 Igande eta jai egunetan Itxita


**2 BERRERA@2 zentrora eramatea**

**Non dago** Nafar kaleko 19an

**Zein ordutegi du**

astelehene ostiralera 9:30 - 13:30 / 17:00 - 20:00  
 larunbatetan 10:00 - 14:00

Tamaina dela eta ezin badut nik neuk eraman, dendarra deitu eta beraiek pasatuko dira etxetik jasotzera

**Telefonoak: 943 50 63 41**


**3 ATEZ ATEKO BULEGORA DEITU eta han esandako lekuan utzi, udaleko biltzaileek jasotzeko**

**Noiz**

Bilketa bi astetik behin egingo da

ikus egutegian bilketa data

**Telefonoa: 900 840 090 doako deia da**

Noiz atera behar da hondakina

tokatzen den asteko asteazken gauean

**GARRANTZIKOAK**

**Beti aurretik deitu!!!**

**Udal zerbitzuak ez ditu etxeko obretako hondakinak bilduko. Horiek Garbigunera eraman behar dira**

**3 ZERBITZU HORIEK DOAKOAK DIRA**

OHARRA: Aurretik ATEZ ATEKO bulegora deitu gabe hondakinak uztea 300 €-ko isuna ekar dezake

**2014ko  
BILKETA  
EGUTEGIA**

Urtarrila: 2, 16, 30  
 Otsaila: 13, 27  
 Martxo: 13, 27  
 Apirila: 10, 24  
 Maiatza: 8, 22  
 Ekaina: 5, 19  
 Uztaila: 3, 17, 31  
 Abuztua: 14, 28  
 Iraila: 11, 25  
 Urria: 9, 23  
 Azaroa: 6, 20  
 Abendua: 4, 18

